

noaua



GuraSOS:

“Arkaitzerrekakoa istripu kimiko larri bat izan zen”

Kalezar, herri historiaren antzoki

Ezohiko musikari baten ezohiko proposamena

Maite Larburu Sutegin arituko da larunbatean, NOAUA! Kulturaldiaren baitan

6. or.

KAFE GARAIA

Ugaitz Agirre idazlea:

“Kultur adierazpenentzat arnasmuneak sortu ziren Usurbilen”

Otar-Goxo

Elifkagaia k
Alimentación

AZAROATIK AURRERANTZ
EGUN GUZTIA ZABALIK
OSTEGUNA ETA OSTIRALETAN

8:30 TATIK
ARRATSALDEKO
20:00 TARA

ETXERAKO ZERBITZUA - ESKAERAK

943 36 55 81
677 64 27 76

DOAN!



KALEFIT

bueltan da Usurbilen!

Astelehen eta Asteazkenak (15:00)
edo Astearte eta Ostegunak (19:15)

Froga eguna eta matrikula **DOAN**



Jarri gurekin kontaktuan
whatsapp bidez 688 610 932.

Mugitu zure osasunagatik



BAZKIDEEN TXOKOA

noaua! euskararen aterpe



4 saski zozketatuko ditugu
azaroaren 22an



Abenduak bitarte bazkide egiten bazara Usurbilgo komertzioetan erabiltzeko 150€-ko erosketaren bonoaren zozketan parte hartuko duzu
943 360 321 / elkarte@noaua.eus

Albisteak iruditan

Emakumeen Etxea prestatzen

Emakumeen Etxea barrutik, edukiz eta mamiz diseinatzeko iaz egindako parte hartze prozesuak emandakotik gauzatze fase batean murgildu da egitasmoa. Eraikin berria zabalzerako prest izan nahi dute egitasmoa eta antolaketa lanok bideratzeko lehen saioa egin dute azaroaren 3an Artzabalaren. Saio gehiago egitekotan dira.

Usurbilgo nesken* saretze bertso-bazkaria

Larunbat honetan, azaroaren 13an, Kafe Tertuliako eskutik. Triki-poteoa arratsaldean:

■ 14:00 Usurbilgo nesken* saretze bertso-bazkaria: Uxue Alkorta, Libe Goena-ga, Lierni Rekondo eta Maddi Aiestaran. Gai jartzailea: Olatz Zuazubiskar.

■ Sarrera: 12 eurotan, Aitzagan eta



Azaroaren 3an Artzabalaren batu ziren, eraikin berriaren irekiera prestatzeko.

Txirristan eskuragarri.

■ 18:30 Triki-poteoa: Ostolaza ahizpak.

■ Antolatzailea: Kafe Tertulia, Usurbilgo neska* gazteen taldea.

Laburrean

3 covid19 kasu azken astean Usurbilen

3 Covid19 kasu berri detektatu dira azken astean Usurbilen. Eremu horian jarraitzen dugu. Hala ere, intzidentzia 142,68tik 110,97ra murriztu da.

Maria Jesus Etxeberriaren erakusketa Sutegin

Azaroaren 15etik 25era argazkiak eta margolanak jarriko ditu ikusgai Sute-giko erakustaretoan. Ordutegi honetan zabalduko du erakusketa: 16:30-18:30.

Bazkari musikatua Patrin

Ainara Ortega eta Iñaki Salvadorrekin, larunbatean, azaroak 13, 14:00etan Patri jatetxean. Txartelak 40 eurotan eskura daitezke jatetxean bertan.

noaia

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaia.eus /// www.noaia.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatorra:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroit S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaia.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaia.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak
Usurbilgo Udala
Euskal Herrira!



Alazne Arruti

Azaroaren lehen eguna heldu ordurako igaro da, eta ordu bete erantzi diogu erlojuari bat-batean. Agian, parrandan, kubata urtu bat bestea-gatik ordezkatzan ari ginela harrapatu gaitu. Edota, begiak itxi eta lozorro betean, ia ohartu ere egin gabe. Moduak ez du askorik axola, egun honen eraginak guztioi inguratu baikaitu jada.

Goizean, egunak argitasun gehiagoz agurtzen gaitu. Nik behintzat, suma dezaket, lotarako pertsianak jaisten ez dituen horietakoa bainaiz. Nahiago dut egunak naturaltasunez esna diezadan, bere garaian, bere forma eta kolorez. Iratzargailua programatuta izanagatik, nire eskuin sorbaldaren gainerantz itzuli eta leihotik begiratu ostean, jo arte itxaroten diot maiz. Eta arinki jotzen hasi bezain laster agintzen diot, itxaroteko eta ostera, 10 minutu barru kasu egin diezadala.

Dena den, arratsaldean, bestelakoak dira kontuak... ohartzerako ilunak irensten gaitu etxerako bidean. Lehen adibidez, mendialdeko errepidea hartu eta azken eguzki printzak xurgatzeko aukera izaten nuen egin beharrak amaitzean. Edo, etxerakoan, afaria prestatzeko erosketa azkarren bat egiteko grina eta

Laranja azalak eta oroitzapenak



“Ingurune kolorge, aseptiko eta espazio antinaturalak eraiki ditugu, gure penak nonbait pilatzeko”.

ALAZNE ARRUTI

“Aurten zehazki, asko maite nuen pertsona bat agurtu behar izan dut. Eta gaiaz, inguruan eta ingurukoekin uste baina gutxiago hitz egin dudanaren sentsazioa nagusitu zait azaroaren 1a hurbiltzean”

borondatea ez zen desagertzen berehalakoan. Orain ordea, argi falta nabariago horrek, bidea ahalik eta motzen eginaz, zuzenean etxerantz gidatzera bultzatzen nau.

Dena den, ordu aldaketaz gain, bada ukitu gaituen iluntasunari lotutako beste gai bat ere. Izan ere, urtea ixteko azken aurreko hilabeteak, noizbait atzean utzi ditugun, edo agian, aurre hartu diguten horiengana gerturatzeko aukera eskaini digu.

Katolikoentzat, azaroaren 1a Santu Guztien Eguna da. Ironi-

koki, aurten jabetu naiz, World Vegan Day-a edota Nazioarteko Beganoen Eguna ere badela. Lehenak ordea, bigarrenarekin alderatuta itzaletik gehiago izan dezakeela iruditzen zait, batez ere hemen inguruan, gizakien heriotzarekiko dugun harreman motagatik.

Heriotzari beldur asko erantsi diogulakoan nago. Egiazki, ulertzekoa da hainbat prozesu mingarriren osteko emaitza izan daitekeela askotan. Eta noski, kosta egiten dela, garaiz kanpo edo prest ez geunden une eta baldintzetan, baten bat zentzu horretan agurtzea. Baina, gaia naturaltasunez lantzea zaila dela sentitzeak, ez du esan nahi, hainbat urtetan astun eta pisutsu bilakarazi ditugun dinamikak, bere horretan mantendu behar ditugunik.

Ingurune kolorge, aseptiko eta espazio antinaturalak eraiki ditugu, gure penak nonbait pilatzeko. Eta noski, gizarte kapita-

lista batean bizitzeak dakarren guztiaz, hemendik ere negozio eredu bat sortu dute baten batzuk. Hiltzeari ere prezio sinestezin batzuk ezarriaz.

Baina espazio hauen erreproduktzioak, asko definitzen du heriotza bizi dugun modua bera. Izan ere, sentimenduok askotan, halaxe biltegitzera ohitu gaituzte, isil eta barkarti, norbere barruan. Aurten zehazki, asko maite nuen pertsona bat agurtu behar izan dut. Eta gaiaz, inguruan eta ingurukoekin uste baina gutxiago hitz egin dudanaren sentsazioa nagusitu zait azaroaren 1a hurbiltzean.

Hilerrian hobiratzea erabaki zuen aitona, eta egun horretan, modu inprobisatu batean aspaldi zapaldu gabeko gunea bisitatu genuen. Bere izen abizenak, harri gainean zizelkatuta irakurtzean, hizki hotz eta heze horiek, laranja azalez ordezkatu nituen nire irudimenean. Bazkalordutan, poltsikoan eraman ohi zuen labanaz, irribarretsu eta pazientziatz ebaiki ohi zituen formez oroituaz.

Fruitua kriski-kraska irentsi eta laster makurtzen zuen burua, hainbeste lan egingako bi eskuak kopeta azpian kokatu eta lo-kuluxka bat botatzeko prest. Eta honek atzetik ekarritako oroitzapen guztiak partekatuaz oroitu nahi nuke gaurkoan.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

20 gorpu aterako dituzte Aginagako hilerritik, Osasun Sailaren baimenarekin

Koronabirusak eragindako osasun krisialdia lehertu aurretik abiatu zuten prozedura. “Izatez, Covid19aren osasun krisiak eztanda egin aurretik

abiatu zuen Udalak Aginagako hilerria husteko ohiko prozedura, leku faltagatik: 10 urtetik gora bertan daramaten gorpuen familiei hilabeteko

epea eman zien berreskuratu edo udalaren kargu uzteko”.

Orain, “Osasun Sailak gorpu horiek deshobiratzeko baimena jaso berri du Udalak,

eta, beraz, datozen asteetan ekingo dio lanari. Hala, ohi bezala, gorpuak erraustu eta errautsen parkean zabalduko dituzte”.

Santuenearen etorkizuna eraikitzeko galdetegia

Santuenea Elkarlanean talde eragilea Auzo Planaren definizioa dinamizatzeko sortu den boluntario taldeak, Usurbilgo Udalaren babesarekin eta Hiritik At Koop.-en bide-laguntzaz, urrian zehar sukalde lanak egiten egon dira, eta iritsi da unea plazara salto egiteko.

Uda ostean, Santueneako parte-hartze prozesuari ekin zioten auzotarrek, eta udaberrian iragarri bezala, galdetegia prestatu dute. Hilaren 21era arte betetzeko aukera izango da, usurbil.eus atarian eta sare sozialetan zein papelean. Azaroaren 12an (17:00-19:00 artean) zein 20an (11:00-14:00 artean) Gure Elkartea tabernaren parean egongo dira nahi duenari galdetegia eskura eman eta betetzen laguntzeko. “Zer dugu hobetzeko Santuenean, epe ertaineko ikuspegian? Zeintzuk dira lehentasunak? Ba al dugu gaurdanik proposatu nahi dugun ideiarik?”.



Azaroaren 12an zein 20an Gure Elkartea tabernaren parean egongo dira nahi duenari galdetegia eskura eman eta betetzen laguntzeko.

GALDETEGIAK

“Hilaren 21era arteko epea dago galdetegia betetzeko. Internetez ere egin daiteke, usurbil.eus atarian”

Espazio Publikoaren eremuan, mugikortasunean, irisgarritasunean, zaintza, ekipamendu zein zerbitzu publikoen eremuan, edota, elkarbizitza eta auzo-antolaketa esparruan ekarpenak erraz jasotzeko tresna da galdetegia. Noski, gai berriak proposatzeko aukera ere izango da bertan.

Behin galdetegiak jasota, ondorioak bildu eta sakontzen jarraituko dute. Azaro eta abendu bitartean, auzo-txangoak burutuko dituzte, oraindik zehazteke dauden datetan, eta diagnostiko osoaren aurkezpen ireki bat ere egingo dute urtea amaitu baino lehen. Ondo bidean, 2022 urtearen hasierarekin batera proposamen fasea ireki ahal izango dute, Santuenea hobetzeko tresna izango den Auzo Plana eraikitzeko. Santuenean Elkarlanean talde eragileak atek irekiak ditu edozein auzokidek parte hartu nahi badu.

Usurbilgo kulturari buruzko azterketaren aurkezpena

“Astero bada zertaz gozatua gure herri eta auzoetan. Baina egia al da sustraiak ondo errotuak ditugula?”. Herritar talde batek azken urtean zehar egindako azterlana aurkeztuko du larunbat honetan, azaroaren 13an, goizeko 11:30ean Mikel Laboa plazan. Euria bada, Sutegin izango da ekitaldia. Deitzaileek berri eman dutenez, “herritar talde batek, Usurbilgo eragile eta artista ezberdinen artean azterketa bat egin du azken urtean zehar euren egoera nolakoa den ikusteko eta iritsi da emaitzak denoi erakusteko garaia”.

Kultur arloan etorkizuneko erronkak “denon artean hausnartzeko eta erabakitzeko unea da” herritar talde honen iritziz. “Kulturgile, kulturzale eta antolatzaile berriak sortu ditzagun denon artean, kultura bizi eta aberatsa duen herrian bizitzen jarraitzeko”. Horretarako elkarlanerako deia egin dute. “Jarrai dezagun elkarlanean kultura egiten”.

Ika-mika

Aske eta berdinen Euskal Herria lortu arte!

Pandemiak kolpatutako herri batean bizi gara, honen ondorioak lehen pertsona pairatu ditugu eta horrek berak lagundu gaitu errealitatea hobeto ulertzen. Honek urrundu egin gaitu eta askotan atsekabetu. Batu ere egin gaitu, komunitate baten parte izatearen sentazioak, distantziatik bada ere, indartu egiten gaituelako. Ahuldu eta desagerrarazi nahi duten komunitatea delako gurea, ezkerreko independentismoa gorpuztu eta errotzen duena. Ultraeskuin faxistari, publikoaren pribatizatzaileei, prekaritatea errezeta bakartzat dutenei, munduaren etorkizuna errausten dutenei, euskara

desagerrarazi nahi dutenei eta finean, euskal herritarren eskubideak murrizten dituztenei, aurre egiten dion komunitate konprometitu, askatzaile eta berdinzalea.

Atzera begiratzeko baliagarriak izan dira azken hilabeteak, gure iraganaren onena galdu ez dugula barneratzeko ezinbestekoak. Herri honen presentzia zerbaitek laburbiltzen badu, injustizien aurkako konpromisoa eta zutik jartzeko gaitasuna delako. Altxatu, elkartu eta borrokatzeko grina izan dugulako eta sekula galduko ez dugulako; konformitzen ez dakien jendeak osatzen baitu Euskal Herria. Erronkei tamainaz erantzuten dien jen-

de konprometitu osatutako komunitatea baita ezker independentismoa gorpuzten duena. Hala demostratu zen duela hamarkadak emandako berpizkundearekin eta konpromiso hori berritzeko baldintzetan baldin bagaude, horri esker ere bada. Horretarako jaio ginen eta horri gatzai zor: nazio librea, justua, feminista, ekologista, antifaxista, euskalduna eta baketsuarekin konprometuta gaude, eta ez dugu etsiko berau lortu arte.

Aske eta berdinen Euskal Herria dugu helburu, inboluzioari horma jarri behar diogu horretarako. Datozen hilabeteetan irekitzen zaigun abagunea probestuz, bermatuak behar

ditugun eskubideak aldarrikatuko ditugu: inor ez gehiago eta inoiz ez gutxiago. Euskal herritarren gehiengoaren nahiak egikaritzeko konpromisoa hartzen dugu eta azaroaren 20an Bilboko kaleetan fase berri bat irekitzera goaz. Batera abiatuko dugun bidea izango da, berriz elkartuta eta bat egirik, ilusioz eta konprometuta. Lehentasunezkoa delako, zurekin egin nahi dugulako, azaroaren 20an arratsaldeko 17:30ean La Casillatik abiatuko den manifestazio nazionalen parte hartzera gonbidatzen zaitugu.

Usurbilgo EH Bildu

Ugaitz Agirre: “Kultur adierazpenentzat arnaguneak sortu ziren Usurbilen”

Ugaitz Agirre Zapirain idazlea da eta Orbeldi Dantza Taldeko kidea. Sortuz *Bakardadea Isolatuz* ekimenaren sustatzaileetako bat izan zen pandemia garaian. Kontu ugari izan ditugu hizpide. Printza batzuk jaso ditugu orriotan, elkarrizketaren bideo osoa noaua.eus web orrialdean topatuko duzu.

NOAUA! Lanean zein etxean, nola eraman duzu pandemiak ekarri duen guztia? Itxialdiak, maskararen erabilera, pertsona gutxi batzuekin bakarrik elkartu ahal izatea...

Ugaitz Agirre: Pandemia hasi zenean, ni kanpoan nengoen, Irlandan. Handik hona etorri behar izan nuen. Hasieratik bazen zerbait handia zetorren sentsazio modukoa. Urtebete baino gehiago luzatu da eta laneko kontuak nahiko normal bizi izan ditut. Nik etxean egiten dut lan: ordenagailua piztu, liburuak hartu... Gehiago izan da ingurua. Batzuetan buruak eskatzen dizu kanpora ateratzea eta lehen itxialdi hartan, adibidez, etxean egon



Idazletza, Orbeldi Dantza Taldea, pandemia... Ugaitz Agirrekin izandako solasaldiak askorako eman zuten.

UGAITZ AGIRRE

“Pandemia hasi zenean, ni kanpoan nengoen, Irlandan. Handik hona etorri behar izan nuen”

behar eta ezin ezer egin... Dena segida bat zen, ez zegoen geldialdi bat egiteko aukerarik. Zentzu horretan, buruari buelta asko eman dizkiot urte t`erdi

honetan.

Idazteko garai oparoa izan al da?

Egia esan, aukerak eman dituen garai bat izan da. Muga gaten ninduen zen kanpora joan ezina, batzuetan idaztea ez baita ordenagailu edo kuaderno aurrean jarri eta idaztea. Idazteak eskatzen dizu jendearekin egotea, gauzak ikustea,

bizitzea... Azken finean horretaz idazten duzu, beste mundu bati buruz, beste toki bati buruz... Pertsoneri buruz ari zara idazten baina lau paretan artean egonda, ez dago bizitzarik, edo badago baina beste era batekoa da. Hari horretatik tiraka beste gauza batzuk sor daitezke, baina ezin izan dugu harremanean egon besteekin eta hori muga bat izan da.

“Garrantzitsua da egiten duzunarekin gustura sentitzea”

NOAUA! Pandemiak, bere txarrean, gauza interesgarri ugari ekarri ditu. Lehen itxialdian, Sortuz Bakardadea Isolatuz ekimena arnagune garrantzitsua izan zen. Eta uda partean Kultur Bira jarri zen martxan Usurbilen.

Ugaitz Agirre: Jendea elkartu eta entretenezko aukera eskaini zuen *Sortuz Bakardadea Isolatuz* ekimenak. Alde batetik, nahiz eta beste 1.000 plataforma eta entretenimendu egon, bazen zerbait presente zegoena, eta bertakoa.

Jende berria edo normalean ikusten ez zenuena animatu zen bere gauzak egitera eta erakustera. Zentzu horretan, oso interesgarria izan zen.

Gero, Kultur Birarekin, jendeak kultur adierazpenentzat arnaguneak sortu zituen berriro. Zortea izan genuen Usurbilen bezalako herri batean egonda, horrelako ekimenak sortu eta horietaz gozatzeko aukera izateagatik.

“Arriskuak hartzearen aldekoa naiz”, hori esan zenigun

Tximeletak bizkarrean nobelaren inguruan eskaini zenigun elkarrizketan. Eta irakurleak, zer moduz hartzen ditu kobentzionalismoetatik aparteko sormen-lanak?

Jasotako *feedback* guztietan denetik iritsi zait. Batzuei gustatu zitzaizen, beste batzuei nobelaren amaiera ez hainbeste... Orokorrean oso positiboak izan dira jaso ditudan iritziak.

Nire gustuen arabera idazten dut, adierazi nahi dudana finkatzen eta formarik egokiena ematen. Nire gustuak

agian ez dira denen gustukoak, bakoitzak bereak ditu azken batean. Funtzionatzen baldin badu, ondo. Eta ez badu funtzionatzen, hortxe geratzen da eta kito. Azken finean, badago aukera handi bat literaturan eta idazle bakoitzak bere publikoak, bere irakurleak lotuko ditu. Uste dut garrantzitsua dela egiten duzunarekin gustura sentitzea eta disfrutatzea. Eta besteek ere zure lanarekin disfrutatzen baldin badute, zoragarri.

“Plaza berriak eta forma ezberdinak sortuta, jende anitza erakar daiteke dantzara”

NOAUA! Orbeli Dantza Taldeko kide zara. Zuzeneko ikuskizunetan ez zarete ohiko euskal dantza saioetara mugatzen. Baduzue zerbait ezberdina eskaintzeko premia, ezta? Ohiko ikuskizunetatik haratago joateko bokazioa duzuela esan daiteke.

Ugaitz Agirre: Egia esan, pentsatzen duten buru asko daude Orbeldin. Proiektuak erraz sortzen dira. Jendea dantzara erakartzeko modu bat da.

Sorkuntza lanetan guk ez dugu dantza garaikidea egiten. Dantza mundutik bizi direnek garatu dituzten mugimenduetara ez gara iristen gu. Guk euskal dantza tradizionala ikasi dugu eta horiek joaten gara era batera edo bestera koreografia ezberdinetan sartzen. Eta ahal den heinean, jendeari gustatuko zaion zerbait sortzen. Biziberritzea hori da.

Dantza Eguneko emanaldietan hori egiten saiatzen gara; betiko dantzak ikasi beharrean, betiko dantzen pauso horiek hartu, beste batzuekin erlazionatu edo beste musika bat jarri. Askotan hori izaten da egiten duguna. Hartu dantza bat, modako kantaren batekin lotu eta beste itxura bat hartuko du.

Atzo saioa izan genuen eta kide batek aipatu zigun bere anaia gelako mutilak dantzan



“Hartu dantza bat, modako kantaren batekin lotu eta beste itxura bat hartuko du”.

UGAITZ AGIRRE

“Asmoa da dantza saioetatik denak gustura ateratzea eta hori da garrantzitsuena”

izena emateko konbentzitu nahian ari zela. LH6 adineko jendeaz ari gara. Poz ederra emango ligukete hala balitz. Pandemiako itxialdi garaian, ezer egiteko aukerarik ez zegoenean, ginkana bat antolatzeak ere eragina izango zuen, agian. Plaza berriak eta forma ezberdinak sortuta, jende anitza erakar daiteke dantza egitera.

Ikuskizun handietan, belaun-

di ezberdinetako dantzariak batzen zarete. Dantza taldea izateaz gain, bilgunea ere bada Orbeli. Zein da gaztetxoak eta helduak elkarrekin dantzan jartzeko sekretua?

Inertziatz etorri da, zorte kontua izango da akaso... Ez dakit oso ondo zergatik izan den. Jendeak izena ematen du gogo daukalako dantza ikasteko eta dantza egiteko. Lehenengoan kostatu egiten da oholtzara igotzea edo kamera aurrean jartzea, edozein arlo izanda ere. Helduenek jada urte batzuk badaramatzate eta jada atzematen da urtetik urtera esperientzia gehiago daukatela, ohituagoak daudela horrelako emanaldi batzuetara.

Badira dantza beste formatu batean, beste era batean egin nahi dutenak, eta badira astean bi orduz izerdi pixka bat bota, dantzan batzuk ikasi eta horrekin nahikoa dutenak.

Beste batzuk badira erromeria garaia iristen denerako hiru dantza jakin nahi dituztenak, ondo pasatzeko eta listo. Erromeri batera joan edo festetan tokatu eta dantza ez baldin badakizu, batzuetan alboratuta geratzen zara. Bi edo hiru pauso jakitearekin edo bi edo hiru dantza egitearekin nahikoa da, eta gainontzekoa itxura egitea da eta ondo pasatzea. Azken finean, asmoa da dantza saioetatik denak gustura ateratzea eta hori da garrantzitsuena.

“NOAUA! kultur elkargune polit bat izan daiteke”

NOAUA! Zure iritziz, NOAUA!k zer du faltan eta zer du soberan?

Ugaitz Agirre: Niri NOAUA!k plaza bat eskaini dit idazteko. Gainontzean, izan daiteke elkargune bat Usurbilgo kulturazaleontzat. Bakoitzak bere eromena jarriko dio, eta bere

autonomiarekin, baina elkargune bat bihur daiteke, noski. Ez zait iruditzen NOAUA!k indar guztia jarri behar duenik, besteen partetik inongo borondatearik ez bada. Kasu horretan, alferrik litzateke; baina kultur elkargune polit bat izan daiteke. Jendea animatuz gero,

horretan indarra jar liteke.

Usurbilen kultur mugimendu handia dago, baina bakoitza bere aldetik ari da eta zerbait egin nahi bada lisakar bihurtzen da, eta beraz, bakoitzak bere bidea hartzen du. Mugimendu hori uztartzeko izan daiteke espazio

komun bat NOAUA!k eskain dezakeena. Jendearen partetik ez baldin badago borondatearik eta bakoitzak bere aldetik jarraitu nahi baldin badu, norberaren erabakia da eta paretaren kontra joan nahi badu segi dezala paretaren kontra jotzen.

Intsumisioaren gaia pil-pilean zen

Duela 25 urte, beste garai batzuk bizi zituzten usurbildarrek. Hori jakiteko NOAUA!ren garaiko atala ikusi besterik ez zegoen: “Alkatea intsumituen defentsan deklaratzera”. **Jose Antonio Altuna** alkatearen bila etorri ziren ertzainak, hirugarren aldiz epaitegira deituta agertu ez zelako. Behin deklarazioak eginda, sententziaren zain geratu zen herria.

Herri epaimahaiak sortzeko gaia ere pil-pilean zegoen garai hartan, eta herri inkesta egin zuen NOAUA!k herritarren iri-

tzia biltzeko. Ezezkoa nagusitu zen, aintzakotzat hartzeko moduko organo judiziala izan-go ez zelakoan.

49 tolare, iruditan

Politika gaiez gain, herriko sagardogileak 1997ko denboraldia prestatzen hasita zeuden, neguko sagardo denboraldirako sagardoa prestatzen. Momentu haietan, **Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak Elkarte**ko kideak Usurbilgo tolare guztiei argazkiak ateratzen aritu ziren argazki galeria eder bat sortzeko. 49 aurkitu zituzten.


Usurbil ez da inoiz geldirik egoteko herria izan, eta **Artisautza Azoka** egin zuten hilaren hasieran.

Arrano zauritu bat

Arrano zauritu bat aurkitu eta sendatzera eraman zuten Santueneko auzotarrek, eta Oialumeko Mus Txapelketan oso bikote indartsuek lortu zuten hurrengo fasera pasatzea.

Kirol arloan, **Behobia-Donostian** parte hartu zuten hainbat herritarrek, oso maila sendoa erakutsiz.

Amaitzeko, hain ohikoa zen lehiaketako galdera luzatu zu-



1996ko azaroaren 8ko portada.

ten: “Noiz egin zuen **Zumetak** frontoi atzeko mural handia?”.

Duela 25 urte

NOAUA! 7. zenbakia 1996ko azaroaren 8an

“Neskak izateagatik alde batera uzten gaituzte”

NOAUA! Noiz hasi zinen eskubaloian?

Olatz Goenaga: Zazpigarren mailan nengoenean Usurbilen hasi nintzen. Gaur egun Bidebieta Corteblancon nago.

Hemen jokatzear gain, atzerrian ere jokatu duzu?

Bai. Iaz Alemaniara joan ginen. Txekoslobakiara eta Errusiara ere joatekoak ginen, baina azkenean haiek etorri ziren hona.

Duela hiru aste Errekopa jokatzan izan zinen Zagreb-en. Nola aurkitu duzu Kroazia alde hura?

Oso ongi. Gerraren ondorioak ikustea espero nuen, baina han ez dago horrelakorik. Hura oso txukun dago.

Bertako soldaduekin ere bitxikeriaren bat gertatu zaizue.

Partidua jokatzan hasi aurretik, soldaduak kantxan sartu eta sartu hasi ziren. Bertan zeuden hiru eserleku multzoetatik bat soldaduz beteta zegoen. Eta haiek ateratzen zituzten oihuak ikaragarriak ziren.

Erabat babestuta ere joan omen zarete.

Bai. Hoteletik ateratzen ginean, autobusean sartu eta aurretik polizia eramaten genuen. Semafororen bat gorrian egonez gero, autoak geratzen zituzten gu pasa gintezen.

Hango jendearekin izan duzue harremanik?

Gutxi. Baina ez zaie gerrari

buruz hitz egitea gustatzen.

Eta orain, final zortzirenetara pasatu zarete?


Bai. Astebukaera honetan Suitzaren aurka jokatu behar dugu partidua.

Nesken eskubaloia nola dago, zure ustez?

Neskak izateagatik alde batera uzten gaituzte. Nahiz eta maila berdinean jokatu, neskak ezin dugu eskubaloitik bizi. Mutilek bai.

Usurbilen zein da eskubaloia-eren egoera?

Ni ibiltzen nintzenean oso zoriontsua nintzen. Nahiko ezberdina da. Beste taldeetan diru asko mugitzen da, eta horrek baldintza asko jartzen ditu.



Olatz Goenaga, eskubaloi jokalaria zen duela 25 urte.

Atezain ona izateko zer izan behar du edonork?

Arina, erreflexu onak izan, azkarra izan eta altua.

Eskubaloiaz gain, zein beste zaletasun duzu?

Aipatzeko modukorik ez daukat. Zaldiak asko gustatzen zaizkit.



txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
Patriketa jatetxea

- bazkariak EGUNERO
- afariak. ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361



MANIFESTAZIO NAZIONALA
AZAROAK 20 · BILBO

ASKE
ETA BERDINEN
EUSKAL HERRIA

Lortu arte!



- ① **Nazio librea**
Erabakitzeko eskubidea eta askatasuna
- ② **Nazio justua**
Aberastasunaren banaketa eta duintasuna
- ③ **Nazio feminista**
Eskubideak eta parekidetasuna
- ④ **Nazio ekologista**
Lurra eta bizitza
- ⑤ **Nazio antifaxista**
Demokrazia eta aniztasuna
- ⑥ **Nazio euskalduna**
Hizkuntza nazionala
- ⑦ **Nazio baketsua**
Presoen etxeratzea. Aitortza, erreparazioa eta ez erreparatzeko bermeak

AUTOBUSA
USURBILGO KIROLDEGITIK
15:00

Izena emateko zerrendak:
Berdatxo, Txirrista, Aitzaga
eta Txiriboga tabernetan



ehbildu

“Jakín badakigu katalogoan agertzen diren produktuak gehiago saltzen direla”

23 edizio bidea jorratu du Euskarazko Produktuen Katalogoa. Lehenbizi papereko edizioan, gerora baita sarean ere. Egitasmo honen izandako bilakaera azaldu digute lerrootan sustatzaileek.

NOAUA! Zein izan zen egitasmo honen abiapuntua?

Euskarazko produktuen katalogoa lehen aldiz argitaratu genuenean euskarazko produktuak, hein handi batean, ezezagunak ziren, eta gurasoek ez zuten euskarririk. Eguberrietako erosketetan euskarazko kalitatezko produktuak erosteko. Nafarroan sortu zen egitasmoa izan zen, eta ondoren hedatu zen beste lurraldeetara. Hasiara batean paperezko katalogoa zen soilik, Eguberrien bueltan banatzen zena, baina gaur egun webgunea ere bada, buletineta harpidetze-ko aukera ematen duena.

Nola egiten duzue produktuen hautaketa? Zeintzuk dira irizpideak?

NOAUA! Zer eragin izan du katalogoak produktuon salerosketetan eta euskararen ikusgarritasunean?

Jakín badakigu katalogoan agertzen diren produktuak gehiago saltzen direla. Nolanahi ere, arazo handi bat dugu ikusgarritasunari dagokionez: azalera handiak. Maiz saltoki horietan eskaintza urria da euskaraz, eta, gainera, ez dira oso agerian egoten diren produktuak. Liburu denda txikitian asko hobetu da egoera azkeneko urteetan alde aurretik badutelako katalogoa



“Katalogoa Nafarroan sortu zen egitasmoa izan zen, eta ondoren hedatu zen beste lurraldeetara”.

KATALOGOA

“Aurten 70.000 ale inguru banatu dira, eta 100 toki-entitate baino gehiago dira egitasmoan parte hartu dutenak”

Garai batean —liburuetan izan ezik eskaintza handiagoa zelako— zegoen guztia plazaratzen genuen katalogoan, betiere kalitatezkoa baldin bazen. Gaur egun, zorionez, ekoizpe-

na askoz ere handiagoa da, eta hautaketa bi lagunek egiten dute: diskoak Badokeko arduraduna den Jon Eskisabelek egiten du eta liburuena, berriz, Migel Angel Asiain “Osio”-k Galtzagorriko lehendakaria izan zenak eta Haur eta Gazte Literaturan aditua denak.

Zer hedapen du egun egitasmoak?

Urte batzuetan Euskal Herri osoan banatzen zen katalogoa,

baina Iparraldean zailtasunak zituzten produktuak eskuratzeko, eta haien katalogoa egiten hasi ziren. Egund Nafarroan zein EAEn banatzen da eta Iparraldean ez da katalogorik banatzen. Gure nahia litzateke berriz ere Iparraldean zabaltzea, egun askoz errazagoa baita produktuak eskuratzeko. Aurten 70.000 ale inguru banatu dira, eta 100 toki-entitate baino gehiago dira egitasmoan parte hartu dutenak.

23. ediziora heldu den egitasmo mugarririk nabarmenetako bi, digitalizazioa eta eskaintza handitzea izan dira ezta?

Eskaintza horren handia denez, motz geratzen gara paperezko katalogoarekin. Gainera, beti dira paperezko euskarria banatu eta gero plazaratzen diren produktuak. Horiek horrela, buletinak banatzen dizkiegu harpidedunei azken nobedadeen berri emateko. Hortaz, esan liteke osagarriak direla paperezko katalogoa eta webgunea.

“Webguneak 8.000 produktu inguru biltzen ditu”

eta haien stocka osatu dezaketelako, eta, gainera, eskaerak gaur egun oso epe motzean jasotzen dituzte logistika gune handi bat dagoelako Euskal Herriaren erdialdean.

Aurrera begira zer nolako bidea aurreikusten diozue katalogoari?

Urtero gure zalantza izaten da ea paperezko edizioarekin jarraitu behar dugun ala ez, baina egia da familiek estimatzen dutela euskarria, baita dendek ere. Errazagoa egiten da hautaketa. Nolanahi ere, webgunea izuga-

rrizko tresna da, 8.000 produktu inguru biltzen dituena. Gure etorkizunerako erronketako bat da webgunearen berri ematea, erreferentziako tokia izan dadin.

Halako baliabideen beharra izaten segituko dugu? Zergatik?

Garai bateko arazoa produktuen ezagutza falta zen, baina azkeneko urteotan eskaintza olatu batek hartzen gaitu, batik bat urte bukaeran eta Liburuaren Egunaren bueltan. Beti behar-ko da kalitatezko produktuak

aholkatuko dizkiguna, izan digitala edo analogikoa.

Beste ezer aipatu nahiko zenukete?

Uste dut azpimarratu behar dugula gurekin aritzen diren enpresetako langileek egiten duten lana. Garai batean teknikariek egiten genuen dena (produktuen bila joan, hautatu, diseinatzaileari eraman eskanea zitzaan...) baina gaur egun ezinbestekoak dira Ttipi-ttapa fundazioko langileak, Biak inprimategikoak eta Iametzakoak.

Aisialdia euskaraz bizitzeko gida lagungarria

A te joka dugu urte amaiera, garai ezin aproposagoa etxe askotan opariak elkarbanatzeko eta oparien bidez, aisialdi tarte ederra bizitzeko. Euskaraz bada ezinhobeto noski. Eredu honetan, irakurri, musika entzun, jolastu, film ederezz gozatu nahiz aplikazio anitzetan murgiltzeko parada dugu, eta euskaraz. Geure hizkuntzan zer nolako eskaintza aberatsa dugun jabetzen laguntzen digu urtero, milaka produktu eskueran jartzen dizkigun Euskarazko Produktuen Katalogoak. 23. ediziora heldu da egitasmoa, irudiz aldatuta. “Bai web-orriak zein papereko edizioak, biek ere itxura berriak estreinatu dituzte”.

Eskuratu beharreko gida, euskara oparitu eta aisialdi tarte hizkuntza berean bizitzeko baliabideak geureganatu nahi baditugu. Milaka produkturen erreferentziak biltzen dituzte proiektu honetan batuak dauden Euskal Herriko udal eta mankomunitateetako 100 Euskara Zerbitzuek baino gehiagok.

70.000 ale

Katalogoaren hedapena na-



Papereko edizioko 70.000 ale banatuko dituzte asteotan Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan.

barmentzeko modukoa beraz; papereko edizioko 70.000 ale banatuko dituzte asteotan Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan; tartean noski, Buruntzaldeko udal zerbitzuetan edota ikastetxeetan. Ohi bezala, bi atal izango ditu sustatzaileen esanetan; 12-16 urte arteko ezarritako eskaintza batetik, eta 0-12 urte arteko haurren eta haien gurasoei begirakoa atala bestalde. “Musika, DVD-filmak, aldizkariak, komikiak, liburuak, jostailu eta jokoak eta gurasoentzako materiala”. Adin tartearen arabera, edota aipatu produktu motaren arabera bilaketa egin daiteke katalogoan.

Webgune bizia

Papereko edizioa online bidetzekoaren erakusleho bat da; baina ez eskaintza osoarena, “atala antolatutako hautaketa bat baizik”. Sarean aldiz, 8.000 produkturen erreferentziak aurki ditzakegu, katalogoa.eus helbidean hain zuzen. Webgune dinamikoa da, bizia, sustatzaileen esanetan, “maiztasunez eguneratzen den web-orria da, argitaratzen diren produktu berriak sartuz, deskatalogatu direnak kenduz”. Papereko edizioan bezala, eskaintza 0-12 eta 12-16 urte tartean berezia dute. “Eta ez hori bakarrik, atal bakoitzak bere direktorioa du eta, hartara, tipologia bakoitze-

ko produktuen bilaketa nabarmen erraztu eta hobetzen da produktuak tituluaren, argitaletxearen, autorearen, adin-tartearen edota prezioaren arabera bistara daitezkeelako. Azkenean, erabiltzaileak produkturen bat begiz joz gero, argitaletxearen denda birtualera sartzeko manera izango du non eskuratu botoian klikatuta”.

Webgune bizia da aipatu moduan; berritzen doaz urtean zehar. Nobedadeen berri izan dezakegu Euskarazko Produktuen Katalogoa egitasmoa buletin elektronikora harpidetzen bagara. “Harpidedunek urtearen buruan 10 buletin jasotzen dituzte, argitaratu berri diren produktuen erreferentziakin. Izan ere, horixe baita katalogoa.eus atariaren helburua: merkatuan aurki daitezkeen euskarazko azken nobedadeak ere erabiltzaileen eskura modu erraz batean jartzea”.

Opariak egiteko egun seinatuak ate joka ditugun honetan, aisialdirako euskarazko produktuak elkarbanatzeko gida ezin lagungarriagoa.



Kalezar, herri historiaren antzoki



Hilabeteko entsegu, urduritasun eta kezkek eman dute beren fruitua. "Auzoa berpiztu eta auzo egiteko helburuarekin hasi ginen proiektuak ezin zuten borobilagoa izan. Eguzkia zeruan,

Kalexarko kaleak jendez beteta eta auzotarron artean ilusioa! Eskerrak eman nahi genituzke "Herribildu" auzotarron kale antzerkia posible egiten lagundu duzuen Usurbilgo Txistulari

Taldeari, Alkartasuna Kooperatibari eta Saizar Sagardotegiari". Hortxe Belmonte auzo elkartekoen eskertza mezua, azaroaren 6ko herri antzerkiaren bueltan.

Usurbilek "herribildu" izaera eskuratu zuenetik 650 urte bete dira aurten. Herriko historiaren pasarte ezberdinak antzeztu zituzten, 1371. urtean herrigunetzen Kalezarko bizilagunek.

Zuhaitz Gurrutxagaren bakarrizketa Aginagako Eliza Zaharrean

Aginagako Eskolako festaren ondotik kultur ekintza gehiago asteotan Aginagan:

Azaroak 13, larunbata

- 20:00 "Futbolistok II", Zuhaitz Gurrutxagaren bakarrizketa Aginagako Eliza Zaharrean.
- Zehaztasunak: "Animatu zaitzete arratsalde bikain bat pasatzera Eliza Zahar berrituan!".
- Sarrera: 5 eurotan, usurbilkultura.eus atarian eta Arraten.
- Antolatzailea: Antxomolantxa.

Azaroak 27, larunbata

- 22:00 Kultur gala Aginagako Eliza Zaharrean.



"Futbolistok II" bakarrizketa eskainiko du larunbat honetan Aginagan.

AZAROAREN 13AN

"Zuhaitz Gurrutxaga Aginagako Eliza Zaharrean arituko da"

- Zehaztasunak: "Bakarrizketa, musika-emanaldiak eta bestelako kultur ikuskizunak".
- Izen-ematea: usurbilkultura.eus
- Antolatzailea: Bidean.



Miriam Arrillaga, Europako txapelduna


Beste garaipen bat Miriam Arrillaga Belokirentzat. Helduen mailan, Europako txapelduna da "Frontballean". Berriki jokatu du Europa mailako txapelketa Toulousen (Frantzia). "Eskerrik asko bidaia honetan ondoan izan zaretzen guztioi, elkarrekin lan eginez emaitza ezinhobeak lortzen direlako! Jarrai dezagun denok batera gure besoak gora jasotzen!", adierazi du sare sozialen bidez.

Txerra Rodriguez: “Hasieran militantzia izan zen hura, ofizio bihurtu da orain niretzat”

Txerra Rodriguezek “30 urte mihigintzan” izeneko liburua plazaratu du. Bertan, azken 30 urteetan euskara elkarteek izan duten eboluzioa aztertzen du Euskal Herriko hainbat txokotan. Liburu horretan oinarrituta, hitzaldia eskainiko du hilaren 15ean, astelehenez. Lantuko dituen gaiez mintzatu da NOAUA!rekin.

NOAUA! “30 urte mihigintzan” izeneko hitzaldia eskainiko duzu, euskara elkartei buruz egin zenuen tesi lanaren izen berbera du hitzaldiak. Tesiaren aurkezpen modura uler daiteke?

Txerra Rodriguez: Hala uler daiteke, bai. Nik tesia egin nuela urtebete pasatu da, eta hortik liburua plazaratu dut. Hitzaldia, beraz, liburu horren aurkezpen moduko bat da. Hori bai, ez dut 400 orriko liburuaren aurkezpen soil bat egin nahi; batetik luzeegia delako, eta bestetik asmoa ez delako hori bakarrik. Liburuaren edukiaz hitz egingo dut, jakina,



“30 urte mihigintzan” izeneko tesia plazaratu du eta liburua izango du hizpide azaroaren 15ean Sutegin eskainiko duen hitzaldian.

TXERRA RODRIGUEZ

“Modu batera edo bestera, euskararen inguruan lan egiten aritu naiz azken aldian”

baina ez dut liburu osoa azalduko. Nondik norako batzuk azaleratuko ditut, eta liburuan

aipatzen ez diren beste hainbat kontu ere izango ditut hizpide. Tesia amaitu nuela urtebete da jada, eta ordutik gauza gehiago ikasi ditut eta informazioa berri ere bai. Kontu horiek ere aipatuko ditut, beraz, eboluzio hori.

Euskara Elkarteekiko interesa nondik datorkizu?

Duela ia 20 urte Derion batu

ginen garai hartako gazte batzuk herriko egoera ikusita. Euskarari bultzada ematea beharrezkoa zela iruditu zitzaigun eta horretarako euskara elkarte bat sortu genuen. Hasieran militantzia izan zen hura ofizio bihurtu da orain niretzat. Modu batera edo bestera, euskararen inguruan lan egiten aritu naiz azken aldian, eta bide hori jorratzen ari naiz.

“Euskal Herriko hainbat txokotako egoera ezberdina da”

NOAUA! Euskara bultzatzeko asmotan sortutako hainbat elkarte badira Usurbilen, bai eta Euskal Herriko beste hainbat txokotan ere. Zein da euskara elkarten egungo egoera orokorra?

Txerra Rodriguez: Euskal Herriko hainbat txokotako egoera ezberdina da. Ezberdintasun nabarmenak daude probintziak eta zonaldeak kontuan hartuta. Orokorrean, badirudi Bizkaian eta Gipuzkoan euskara elkarteak ez daudela sasoirik onenean. Askotan aipatu den kontua da, hamarkada batzuk lehenago



“Orokorrean, badirudi Bizkaian eta Gipuzkoan euskara elkarteak ez daudela sasoirik onenean”.

lan handia egin zela euskara elkarteak sortu eta indartzeko, baina orain joera horrek indarra

galdu du. Badaude salbuespenak, noski. Beste zonalde batzuetan, berriz, geroz eta mugitu

mendu gehiago sortzen ari da euskararen inguruan, eta horrek, euskara elkarten sorrera bultzatu du. Araba aldean eta Bizkaiko kanpokaldean nabari da goranzko joera hori, eta gazteen zein helduen aldean bultzada emateko asmoa. Nafarroan ere, azken bolada honetan kontu hauek mugitzen hasi dira, eta Ipar Euskal Herrian ere, pixkanaka euskara sustatzeko lantxoak egiten hasi dira. Euskara elkarte gisako taldeak agertzen hasi dira, baina beti ere kontuan izanda hango egoeraren be-zerezitasunak.

‘Bete ingoiau’ antzezlaneko aktoreak: “Barre egiteko aukera izango dugu”

Bete ingoiau antzezlanaren ekarriko dute Sutegira Zutani Teatroa taldeko kideek. Gasolindegiko bateko bi langileren gorabeherak ditu ardatz lanak, eta umore beltzean oinarrituta dago. Esti Curiel eta Goizeder Iturain zumaiarrak dira ostiral gauean 22:00etatik aurrera eskainiko den lanaren antzezleak. Esti Curielek NOAUA!rekin partekatu ditu antzezlanari buruzko xehetasunak.

NOAUA! “Bete ingoiau” antzezlanean harremanak aztertuko dituzue, baina zein mota-tako harremanak?

Esti Curiel: Bi langileren harremana aztertzen du antzezlanak. Ordu pila bat pasatzen dituzte elkarrekin. Gasolindegiko batean egiten dute lan eta bi pertsonaiak oso ezberdinak dira. Hasieran, bien arteko ohiko harremana erakusten du lanak, baina gero, pakete bat aurkitzen dutenean, harremanak aldaketak jasango ditu. Kanpotik datorren aldaketa batek hankaz gora jarriko ditu bi emakumeak. Lanean ezagututako bi emakumeek beste esparru batzuetan elkar ezagutu beharko dute, eta bakoitzaren beste alderdi bat azaleratuko da.



Esti Curiel eta Goizeder Iturainek ‘Bete ingoiau’ antzezlanaren eskainiko dute ostiral honetan Sutegin.

‘BETE INGOIAU’ ANTZERKIA

“Gazte zein helduei zuzenduta dago. 16 bat urtetik aurrerako edonorentzat izan daiteke, baina ez umeentzat”

Umore beltza eta absurdoa izango dira ardatz.

Dilema etiko baten aurrean topatuko dira bi pertsonaiak eta umorea atera genion horrelako egoera bati.

Gazte zein helduentzat da, beraz.

Gazte zein helduei zuzenduta dago. 16 bat urtetik aurrerako

edonorentzat izan daiteke, baina ez umeentzat.

2020an, Poltsiko Antzerkiko Sorkuntzako bigarren saria irabazi zuten.

Gure proposamena aurkeztu genuen eta sari txiki bat eman ziguten antzezlanaren estreinatua ahal izateko. Aurtengo Poltsiko Antzerkiko jaialdian estreinatua dugu sariak aukera eman digulako horretarako. Goizederrek eta biok zerbait egin nahi genuen batera, eta aukera hau ikusi genuen. Jakinda lehen hiru sariak aukera emango zigutela antzezlanaren aurkeztu ahal izateko, aurrera egin genuen. Gaia lantzen hasi ginen pixka-

naka, nahi gabe antzera, eta sariak aurrera egiteko aukera eman zigun.

Goizeder Iturainek eta biok hartuko duzue parte antzerkian. Maiz egin izan duzue lan elkarrekin?

Biok zumaiarrak gara. Ni antzerkian aritzen naiz batik bat, eta Goizederrek antzerkiaz gain gauza gehiago ere egiten ditu. Herrian parte hartzeko deia egiten dutenean ekitaldi kulturalerako, zenbaitetan egin izan ditugu gauzatxoak batera. Horrelako gauza txikietatik gogoia sortu zitzaigun zerbait gehiago egiteko, eta modu serioagoan hartu nahi genuen.

“Elena Irureta eta Aizpea Goenagaren laguntza jaso dugu”

NOAUA! Bi aktoreen artean eginiko lanketa prozesu baten ondorioa da Usurbilen eskainiko duzuen antzezlanaren?

Esti Curiel: Guk hasiera batean gasolindegiko batean kokatu genituen pertsonaiak. Orduan pertsonaia asko sartu nahi genituen. Inprobisazio lanaren bidez, testutxo batzuk sortu genituen ondoren forma ema-

teko asmoarekin. Behin hori eginda, Elena Irureta aktoreari laguntza eskatu genion pixka bat nolako itxura hartzen zion ikusteko, eta atzera bota zigun dena: “hau ez da interesgarria”, esan zigun. Beraz, buelta gehiago eman behar izan genizkion testuari, eta bide horretan, Elena Irureta gurekin egon zen, bai eta Aizpea Goenaga ere. Testu-

batzuk atzera bota zizkiguten, baina azkenean aurkitu genuen formula egokia. Zor- tea izan dugu Elena Irureta eta Aizpea Goenaga gisako bi artistek lagundu digutelako gainbegirada bat ematen. Behin testuak landuta, ondorengo prestatze prozesuari ekin genion, eta horretan bidela- gun izan dugu Inaxio Tolosa, lanari gorputza ematen.

‘Bete ingoiau’ antzezlanaren harrera orokorra nolakoa izan da orain arte?

Nire ustez harrera ona izan da, eta jendeak gustuko duela uste dut. Ondo pasatzeko tarte bat ematen du, eta barre egiteko ere bai. Bakoitzaren barnean zer mugitzen duen norberaren arabera da eta hori irekita gelditzen da.

Ezohiko musikari baten ezohiko proposamena

Maite Larburuk ezohiko ibilbidea osatu du eta bere bakarkako proposamena ere halakoxea da, ezohikoa. Bitxia. Musika klasikotik dator baina ederki asko moldatu da musika popularraren arauetara. Larunbat honetan Sutegin arituko da. Lan berria besapean iritsiko da gure artera.

Biolina musika klasikoaren ildotik ikasi ondoren, antzinako musikan edo mugimendu historizistan espezializatu zen Amsterdameko Kontserbatorioan. Hernaniarra jaiotzez, 2002 eta 2018 urteen artean Amsterdamen bizi izan zen. Jaioterrian da berriro.

Azken 15 urteotan antzinako musikan espezialduriko talde esanguratsuenekin egin du lan. Horien artean dira Amsterdam Baroque Orchestra, B'rock, Anima Eterna Brugge, Holland



Maite Larburuk disko berria aurkeztu du: 'Krak'. Carlos Taroncher eta Karlos Arancegui musikariekin batera arituko da larunbatean Sutegin.

MAITE LARBURU

"Krak diskoa aurkeztuko du larunbatean Sutegiko auditorioan"

Baroque, Ricercar Consort, Les Timbres...

Lan berria plazaratu du

Maite Larbururen lanabes bakarra ez da biolina. Musika tresna desberdinen eta

hots-hitz-armonien mugak arakatzea gustuko duenez, lau disko plazaratu ditu kantugile gisa. Bi Neighbor taldearekin eta azken bi diskoak (Hezurren Azpian eta Krak), bakar-lari gisa.

Haritz Harreguyrekin estudioan egina

Krak izeneko diskoa aurkeztuko du larunbatean Sutegin. Disko hau Haritz Harreguyren

estudioan grabatu zuen eta Zart kolektiboarekin plazaratu du orain gutxi.

Musikari zein aktore

Musikari gisa ibilbide oparoa osatu du. Aktore gisa lehen urratsak eman berri ditu. Axut! antzerki konpainiarekin batera, Amua antzezlana osatu du. Antzezlan honetarako musika sortzeaz gain, Maite Larburu oholtza gainean aritzen da aktore lanetan, Ximun eta Manex Fuchs anaien alboan.

Eneritz Furyak-ekin batera

Maite Larbururen aurretik, Eneritz Furyak arituko da larunbateko kontzertuan. Irungo kantariak udaberri hasieran plazaratu zuen *Emadan* izeneko diskoa.

Kontzertua 22:00etan hasiko da eta sarrerak eskuragarri dituzue oraindik. Egunean bertan bestela, Sutegiko leihatilan.

Musika eta umorea, Kulturaldiaren lehen txanpan

Azaroak 12, ostirala

■ 22:00 Zutani Teatroa: 'Bete ingoiu' antzezlana Sutegin.

■ Zehaztasunak: Goiz Eder Iturain eta Esti Curielek hurremanen inguruko hausnarketa eragin nahi dute istorio honekin, umore beltz eta absurdoa erabiliz.

■ Prezioa: 10 euro, bazkideek 8.

Azaroak 13, larunbata

■ 22:00 Eneritz Furyak eta Maite Larbururen kontzertua Sutegin.

■ Zehaztasunak: Eneritz Furyak 'Emadan' bere azken lana aurkeztuko digu. Maite Larburuk ere disko berria dakar besapean: 'Krak'.

■ Prezioa: 10 euro, bazkideek 8.

Azaroak 14, igandea

■ 19:00 'Luze edo Motz' binakako bakarriketa Sutegin,



Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai. Igande honetan, arratsaldeko 19:00etan hasita, "Luze edo Motz" ikuskizuna eskainiko dute Sutegin.

Mirari Martiarena eta Idoia Torregarairen eskutik.

■ Prezioa: 10 euro, bazkideek 8.

Azaroak 15, astelehena

■ 19:00 Txerra Rodriguezen '30 urte mihigintzan' hitzaldia Sutegin.

■ Zehaztasunak: "Txerra Rodriguez euskara elkarteen

ibilbidean izandako lorpenak, hutsuneak eta erronkak xehexhe aletzen saiatuko da.

■ Prezioa: doan.

Azaroak 19, ostirala

■ 22:00 Ruper Ordorikak disko berria aurkeztuko du Sutegin: 'Amour eta tojour'.

■ Prezioa: 10 euro, bazkideek 8.

Azaroak 20, larunbata

■ 19:00 Tio Teronen semeak: 'Festamentua' Mikel Laboa plazan. Eurria bada, frontoian.

■ Prezioa: doan.

Azaroak 21, igandea

■ 19:00 Don Inorrez taldeak 'Esku hutsik' diskoa aurkeztuko du Sutegin.

■ Prezioa: 10 euro, bazkideek 8 eurotan.

Informazioa, sarrerak:

■ NOAUA!-ren egoitzan (bazkideentzako sarrerak NOAUA!ko egoitzan bakarrik eskuragarri) edo usurbilkultura.eus atarian.

■ Antolatzailea: NOAUA.

■ Laguntzailea: Udala.

Gabonetan oinarritutako gozogintza tailerra antolatu dute Santuenean

Gabonetako gozogintza tailerra antolatu dute Santuenean hilaren 19 eta 26rako. Arratsaldeko 17:00etatik aurrera, bi orduz, gabonetan oinarritutako denetariako postreak egiteko aukera izango dute partehartzaileek. Maria Martinez gozogilea izango da tailerreko arduraduna. Berarekin izan da NOAUA! xehetasunen berri izateko.



Maria Martinez gozogilea izango da tailerreko arduraduna.

NOAUA! Gozogintza tailerra antolatu duzue azaroaren 19 eta 26rako. Zer ikasi ahal izango dute bertara hurbildutakoek?

Maria Martinez: Gabonetan oinarritutako gozogintza tailerra egingo dugu. Errege eguneko errege-opila gisakorik ez, denbora asko hartzen duelako. Bi orduko bi saiorekin ez du denbora nahiko ematen hori guztia egiteko. Dirudienez haur askok eman dute izena, eta beraz, gabonetako gailetak egingo ditugu: orea egiten ikasiko dute, orea mozteko erramintak erabiltzen ikasiko dute... Orain erabat zehaztu gabe daukagu horrez gain zer egingo dugun. Neska batekin ari naiz hori guztiari buruzko xehetasunak ixten, eta errezeta errazak aurkitzen.

Nori dago zuzenduta tailerra? Haur askok izena eman dute bai-

MARIA MARTINEZ

“Haur askok izena eman badute ere, helduek ere parte har dezakete”

na helduek ere parte har dezakete.

Gozogilea zara ofizioz?

Gozogilea naiz, bai. Haurra izan nuen duela hilabete batzuk, eta haurdunaldian lana egiteari utzi nion, eta oraindik ere egoera horretan jarraitzen dut. Irlandan eta Herbehereetan egin dut lan, eta bertan Estatu Batuetako gozogintza asko landu dut: azenario tarta, red velvet... Espainian ere leku askotan egin dut lan. Murtziakoa naiz, eta Toledon lan egin nuen Pepe Rodriguezekin. Oso eza-guna da Master Chef programako epaile izateagatik.

Nola ikasi zenuen gozoak egiten? Etxetik datorkizu zaletasuna?

Murtziako ostalaritza eskolan sukalde prestakuntza egin nuen, eta hortik aurrera gozogintzarako bidea hartu dut. Osaba bat badut okina dena, baina ez dut uste hortik etorri zaidanik. Sukaldean ere gustora aritzen naiz, eta gaur egun bide asko dituen sektorea da.

Gozogintzan lanean hasi nintzen oturuntzetan postreak prestatzen, eta horrela konturatu nintzen nire esparrua gozogintza dela eta ez janaria prestatzea. Orditutik ez dut sukaldean lan egin ez bada postreak egiteko izan. Nire senarra sukaldaria da, eta beraz, hark prestatzen du janaria eta nik postrea.

Sendabelarren inguruko tailerra

Azaroak 12 ostirala

■ Ikastaroa azaroaren 5ean hasi zen.

■ Ordua: 17:30, bi orduko ikastaroa.

■ Santuenea, 12 elkarteko lokalean.

■ Izena emateko: 670 027 731 edo 615 715 991.

Trebetasun jolasak, musikaz girotuta

Azaroak 13 larunbata

■ 16:30/18:30 Trebetasun jolasak.

■ 18:00/20:00 DJ Gorka Mendirekin disko festa txikien-tzat.

■ Oharra: euria egingo balu, frontoian.

Gozogintza tailerra

Azaroak 19 ostirala

eta azaroak 26 ostirala

■ Ordua: 17:00/19:00.

■ Santuenea 12an, elkarteko lokalean.

■ Izen-ematea: 670 027 731.

Musika kalean DJ Gorka Mendirekin

Azaroak 27 larunbata

■ Ordua: 18:00/20:00.

■ Jubilatuen lokala eta Santuenea K.E.-ko lokalaren aurrealdean, DJ Gorka Mendirekin.

Gabonetako artisau azoka egingo dute Santuenean

Gabonetako Azoka egingo dute Santuenean abenduaren 11n, arratsaldean. Artisau azoka izango da, gabonetarako opariak edo produktuak erosi eta auzoko zein herriko artisauak euren produktuak saltzeko aukera izango dute

bertan.

Parte hartzeko aukera zabalik dago

Auzoan hainbat artisau dituzte denetariako produktuak egiten dituztenak: xaboiak, poltsak, kamisetak... Horiez

gain, deialdia luzatu nahi diete antolatzaileek herriko artisauak ere azokan parte har dezaten. Horretarako, Santuenea Elkarteko kideekin harremanetan jarri beharko da: 670 027 731 (Alazne).

Bigarren eskuko gauzek ere

lekua izango dute azokan. Auzoan eta herrian hainbat pertsonak izan ditzaketen premiak asetu nahi dituzte, eta horretarako, egoera onean dauden denetariako produktuak emateko aukera izango du nahi duenak.

“Arkaitzerrekakoa istripu kimiko larri bat izan zen”

Duela urte eta erdi gertatu arren, oraindik bada zer ezagutua, ez baitzegoen dena azaldua.

Gogoan izango duzue, 2020ko maiatza hasieran Zubietako erraustegitik Arkaitzerrekara izandako amoniako isuria. Ehunka arrain hil zituen, aingirak tartean. Baina baita orain jakin denez, “tamaina handiko animaliak ere, zehazki 15 ardi”. Eta ez hori bakarrik; “laborategi bategen aztertu zuten aingira bategen kloroalkano-indize altua zuten, osagai debekatua eta oso kantzerigenoa; jatorria erraustekailuan du, Guardia Zibilaren perituen arabera”, GuraSOSeK azaroaren 3an Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean egindako agerraldian salatu zuenez. Iazko maiatzekoa gainera, ez zen izan isuri bakarra; Covid19-ak eragindako osasun krisialdia tarteko, konfinamendu betean ginela iazko martxoaren 18an “antzeko zerbaite” gertatu zela salatu du aipatu elkarteak. “Arkaitzerrekako hondamendi ekologikoa proiektuaren garapenean irregulartasun eta ilegaltasun larri ugari izan zirelako gertatu zen, orain ezagutu diren ikerketen arabera”, salatu dute.

Instalazioen funtzionamendua, legearen aurkakoa

Polizia ikerketa honi buruzko hainbat xehetasun plazaratu ditu GuraSOSeK. “Instalazioen funtzionamendua legearen



Eragindako kaltea handia izan zela dio GuraSOSeK.

GURASOS

“Iazko maiatzekoa ez zen isuri bakarra izan. Guardia Zibilaren perituen arabera, iazko martxoaren 18an antzeko zerbaite gertatu zen

aurkakoa zela behin eta berriro aipatzen da ikerketan”. Ikerketak berak dioenez, “probak egin dira instalakuntzetan eraikitze lanak oraindik amaituak egon gabe”. Baina txosten berak ohartarazten du, Zubietakoa bezalako ezaugarriak dituen erraustegi bat probaldi fasean egon arren, “gai kutsakorrak ez zabaltzeko sistema zuzentzaile guztiek egoki funtzionatu behar dutela, “personen eta ingurumen osasunari lotutako arriskuak saihesteko”. Hala dioela Ingurumen Baimen Bateratuak.

Guardia Zibilaren Ingurumen Unitate Zentraleko (UCOMA) perituen txostenak GuraSOSeK esanetan, iaz Arkaitzerrekan jazotakoa “istripu kimiko larri bat” izan zela dio. Istripua jazo zela “amoniobiltegia kar-

gatzeko prozesuan amoniakoa isuri zenean. Baina, ondoren, ez zen istripua izan, baizik eta instalazioaren arduraduna ekintza kontzientea izan zen, amoniakoaren isuriaren aztarnak ezabatzen saiatzeagatik. Horretarako, ur-kantitate izugarriak isuri ziren (2.302.992 litro ur amoniakatu, ikerketaren arabera), eta euri-uren sare osoko amoniakoa zuzenean Arkaitzerreka errekaaren emarira eraman zituzten”.

Isuriaren jatorria erraustegian kokatzen du Guardia Zibilak

Eragindako kaltea itzela izan zen, Arkaitzerrekako ehunka arrain eta baita, GuraSOSeK aipatu duenez, 15 ardi ere hil zituen hondamendiak, “iker-tzaileek diotenez, agonia dramatiko eta luze baten ondorioz”. Espezie babestua den Europako aingira ere erasotu zuten isurketak. Poliziaren ikerketen arabera, “hildako aingira baten ehunean klaroalkano-maila oso altua (0,885 mg/kg) detektatu” zuten. Guardia Zibilak gai honen jatorria erraustegian kokatzen duela

dio GuraSOSeK. “Toxiko horren iturria erraustegian erretzen diren plastikoen, gomen eta bestelako hondakinen erraustetan dagoela uste dute”.

Modu horretan, poliziak egun haietan jazotakoaz Gipuzkoako Hondakinen Kontsultorioak (GHK) adierazitakoa gezurtatzen duela dio GuraSOSeK, alegia, “zirkuitu itxi bat dagoela eta ezin dela erreka isuri. Egia esan, amoniako-isuriaren kubetako zuzeneko lotura zuten euri-uren sarearekin, eta isurketa zuzenean egiten zen erreka, ingurumen-baimenaren eta URA Agentziak erreka isurtzeko baimenaren aurka”.

Eta hondamendia gertatu zenean, “kubetako isuria jaso zezan”, “larrialdi-zerbitzuetara eta hondakin arriskutsuen kudeatzaile batera deitzeko” aukera izan zutela gogorarazten du GuraSOSeK. Eta legez hala egitea zegokiela. Guardia Zibilaren perituen txostenak dioena ekarri dute gogora. “Gai Kimikoen Biltegiratze Araudiarren 8. artikulua dioenez”, pertsonen artean, ingurumenean edota instalakuntzan bertan kalte garrantzitsuak eragiten dituen istripuren bat gertatzen denean, “berehala jakinarazi behar dio” erkidego autonomoko dagokion erakundeari. Baina aipatu txostenaren arabera, “nabarmendu beharra dago aipatu erkidegoko ordezkari horrek ez zuela jakinarazpenik jaso eta beraz ezin izan zuela ikuskaritza bisitarik egin”.

Erraustegia berehala geratzeko eskaera

Arkaitzerrekako hondamendia gertatu zenean, “lehenetsuna ez zen izan haren eragina murriztea, baizik eta haren existentziaren frogak ezkatzea, gainerako agintariei jakinarazi gabe eta instalazioen ikuskapena galarazita”.

GuraSOSeK ondorioztatzen duenez, “erakundeak (GHK, Aldundia, Eusko Jaurlaritzak) erraustekailuaren arriskuen berri ez dira ematen ari, ezta osasuna eta ingurumena bermatzen ere. Zero gardentasun, zero informazio. Zero berme. Berriro ere,

herritar antolatuek ordezkatu behar dituzte gabezia horiek, erakundeak (GHK) delitu ekologikoak egiteagatik ikertzen ari diren bitartean”. Egoera honen aurrean erraustegia berehala geratzeko eskatu du GuraSOSeK. Polizia ikerketak haiek salatutakoa

berresten duela dio. “Osasunerako eta ingurumenerako arrisku erreala eta larria dagoela, interes ekonomikoak lehenesten direla, erraustegiak kutsatu egiten duela, ez dagoela kontrol egokirik, ez dagoela informaziozko, propaganda baizik”.

Zaintza ereduaz bilera irekia

Parte hartze prozesua abiarazi duen talde eragileak bilera irekia deitu du azaroaren 15erako, 15:30-17:30 artean Potxoenean. “Bilerak bi zati izango ditu: lehenengoan, talde eragilean orain arte landu dituztenak azalduko dituzte, eta, bigarrengoan, beste zenbait herritan egiten ari diren esperientziak ezagutuko dituzte”. Antolaketagatik, aurrez izen ematea eskatzen dute, bideo-tatik; 943 377 110/parekidetasuna1@usurbil.eus

Deitzaileek iragarri dutenez, “bilera hau denon arteko elkargune bat izatea nahi dugu, eta saioa hiru talde-tan antolatuko dugu: talde bat zaintza jasotzen duten



Bilera irekia azaroaren 15ean egingo da, arratsaldeko 15:30etik 17:30era Potxoenean.

pertsoneri eta zaintzaile familiarrei zuzendua izango da, beste taldea zaintzaile profesional eta zaintzaren inguruko zerbitzuek osatuko dute, eta hirugarren talde bat komunitatearena izango da,

non herriko eragile eta herritarrek parte-hartzeko aukera izango duten”.

Prozesuak orain arte emandakoa, aurreko bileren aktak, usurbil.eus atarian kontsulta daitezke.

“Bidea ipar” liburuari buruzko solasaldia Sutegin

Bere eleberriek irakurzaletasun nabarmena piztu izan dute. Ibon Martin idazlea Sutegin izan zen iragan astean. Duela urtebete gaztetxoenei zuzendutako saioa eskaini zuen. Oraingoan, helduentzako, azaroan zehar segida izango duen “Udazkena Liburutegian” zikloaren baitan.

Asteazkenero emanaldi bana iragarri dute kultur-etxean. Aste honetarako “Kolorez jantzita” ipuin musikatua. Hurrengo asteotarako:



Ibon Martin idazlea Sutegin izan zen iragan astean.

Azaroak 17, asteazkena

■ 19:00 “Bidea ipar” liburuaz solasaldia, Iker Karrera eta Unai Ugartemendiarekin. Izen ematea: usurbilkultura.eus

Azaroak 24, asteazkena

■ 18:00 “MagiaZ: Magia eta Zientzia uztartuz, Marsel margoarekin” emanaldia Sutegin. Izen ematea: usurbilkultura.eus

Euskara eta aisialdiko laguntzen ebazpenak

Bi udal diru-laguntza lerroei buruz ari gara; batetik aurreko ikasturtean zehar aisialdiko begirale nahiz zuzendari ikastaroak egin dituztenei zuzendurikoaz. Kasu honetan, hiru eskabide aurkeztu ziren ekainaren 28tik uztailaren 9ra eta hirurak onartu ditu Udalak, guztira 540 euroko laguntza banatu du. Hirurek begirale ikastaroak egin dituzte, ez da zuzendari ikastarorik egin duenik aurkeztu laguntza deialdi honetara.

Bestalde, ezarritako baldintzak betetzen dituztenek (usurbildarra izatea, klaseen %80an parte hartu izana egiaztatzea...) euskara doan ikasi dezakete Usurbilen. Guztira 51 eskabide erregistratu ditu Udalak eta 23.724,93 euro banatu ditu.

Covid19ak hildakoak gogoan

Haien omenezko ekitaldia prestatzen ari da Usurbilgo Udala; abenduaren 12an, 13:00ean izango da, Bizkarreko parkean. Erreferentzia gunea izango da etorkizunean; “Udalak Covid19aren ondorioz gertutoren bat galdu duten herritarrei doluminak helarazi nahi dizkie, eta, horregatik, gaixotasun horrek hildako herritarrek gogoratzeko leku iraunkorra egokituko du Bizkarreko parkean”.



EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA

Antxeta

TABERNA

egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·karta ·oilasko erreak, pizzak..

JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

Zeramika ikastaroetarako izen-ematea ireki du Buztinzulo elkarteak

Buztinzulo zeramika elkarteak pixkanaka indartu egin nahi dute kideek, eta ikastaroak antolatu dituzte interesa dutenek zeramikaren oinarriak ikas ditzaten. Azaroan zehar izen ematea irekita egongo da 652702237 telefono zenbakian goizeko 10:00-12:00 bitartean, edo bestela, buztinzulo@gmail.com helbidera idaztea nahikoa izango da. Bazkidetza ere irekita dago Buztinzuloko kide egin nahi duen edonorentzat.

Astean bi orduko ikastaroak proposatu dituzte, pixkanaka teknika ezberdinak ikasi ahal izateko.

Piezak labean egosteko aukera
Hilean 15 euroko kuota ordainduta, 12 kg buztinen jabe



Azaroan zehar izen ematea irekita egongo da.

BUZTINZULO ELKARTEA

“Astean bi orduko ikastaroak proposatu dituzte, pixkanaka teknika ezberdinak ikasi ahal izateko”

izango da partehartzailea eta piezak labean egosteko aukera

ere izango du.

Norberaren kontura, etxetik ekarri beharreko materiala ere kontuan hartu behar da: amantala, trapua, eskuoihal zaharra, goilaratxo bat, kristalezko potea taparekin, hortzetako zepilu zaharra, aizto zahar bat, pintzela, esponja, makilak eta tupper edo kaxa bana.

Bazkide egiteko kanpaina

Ikastaroaz gain, Buztinzulo familiak hazten jarraitu nahi du eta besozabalik hartuko dituzte bazkide berriak. Aukera zabala izango dute bazkideek euren proiektuak garatu ahal izateko. Giltzak eskuratuko dituzte nahi dutenean lokalean sar daitezten. Materiala uzteko leku propioa ere izango dute, eta nola ez, euren piezak labean egosteko aukera. 200 euroko urteko kuota baten truke, abantaila horietaz gozatzeko aukera izango du edonork. Bazkideek, ordea, betebeharrak batzuk ere izango dituzte, halaola garbiketaz arduratzea, ikastaroak antolatzen laguntzea zein Buztinzuloren antolakuntza orokorrean aktiboki parte hartzea.

Errebote plazarako sare berria



Herritar batek bidalitako ondoko argazkian ikus dezakezuen, Zubietako errebote plazako sarea aldatu eta berria jartzen aritu dira egunotan.

Gogotik gozatu zuten Aginagan



Aginagako eskolan festa eguna izan zuten larumbatean. Gaztetxoek denetariko tailerrak egiteko aukera izan zuten: eskulanak, jolasak, marrazketa...

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ERAMATEKO!!!

·EGUNEKO MENUA
·KARTA

ARTZABAL (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)
BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com **943 36 91 39**

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

EAJ-k hainbat proposamen luzatu ditu, 2022ko udal aurrekontuetan jasoak izan daitezzen

2022ko udal aurrekontua bideratzeko garaia da. EH Bilduk gidatzen duen udal gobernuaren egun hauetan ari da auzoz auzo bere proposamenaren berri ematen. EAJ alderdiak ondoko egitasmoak luzatu zituen azaroaren hasieran egin zen Ogasun Batzordean.

Bizikidetza plana martxan jartzea

Kultura politiko demokratikoa, bizikidetza eta giza eskubideen arloa garatzeko eskaera egin du EAJ-k. "Iraganean gertatutakoaren inguruan hausnarke-ta egin, etorkizuneko kultura demokratikoan sakonduz gure herriko bizikidetzan eragiteko". Proposamena 2020ko udal aurrekontuen eztabaidan onartua izan zen, baina Covid-19ak hankaz gora jarri zuen udal aurrekontua eta plan hau ez zen aurrera eraman.

Usurbil-Zubieta bidegorria

Ugaldea industrialdearen atzetik trazadura seguru bat egitea proposatu du EAJ-PNV-k. Herri sarreran aurreikusitako biribilgunearekin lotura bat izan beharko lukeela dio. Lasarte-Txikiardi bizikleta eta oinezko bidearen proiektuarekin ere lotu beharko litzateke. "Partida hau 2020ko aurrekontuetan onartu izan zen baina ez da aurrera eraman".

Etxealdia-Santuenea lotuko dituen zubia eraikitzea

Etxealdiako zubia luzatzea proposatzen du, "trenbidea



Proposamenetako batzuk 2020ko udal aurrekontuetan jasoak izan ziren baina Covid19aren erruz ez ziren aurrera eman. Berrirri proposatu dituzte.

saihestu eta Santueneara doan zubiraino bidegorri batekin lotuz". Euskal Trenbide Sarearekin elkarlanean beti ere. "Proiektua idazteko partida bat jasotzea beharrezkoa deritzogu", dio alderdi jeltzaleak.

Txokoalde auzoko sarbidea hobetzea

Usurbilgo alderdi jeltzalearen esanetan, Usurbilgo puntu beltzetako bat da hau. "Premiazko betebeharra da Txokoalde eta N-634 errepidea lotzen dituen bidegurutzea behar bezala konpontzea". Hala-ber, autobus geltokira iristeko segurtasun neurriak ezarri eta Aginaga auzoarekiko lotura hobetu beharko litzateke. "Zalantzarik gabe, N-634 errepidea Foru Aldundiaren eskumena da, baina presazko errekerimendua helaraztea Udalaren lana da", eta baita "Foru Aldundiarekin elkarlanean udalerrri barruko era guztietako barne komunikazioari dagokion lanketa behar

bezala koordinatzea eta burutzea".

Santuenea eta Zubieta arteko bidea egokitzea

EAJrentzat, udalerrri barruko funtsezko lotura da. "Bide honen ezaugarri partikularrik kontuan hartuta, egokitze lanak eskatzen ditu. Esate baterako, trafikoa eta pasaeran dauden baserriak bateragarri egin beharko liriteke egoiliarrei etxeko atarian segurtasuna bermatu ahal izateko".

Landa eremua sustatzeko lau neurri

- Mantenu lanen maiztasuna handitu (bide bazterrek txukundu, ubideak garbitu...).
- Baserri bideak egokitzeko plan bat landu, "bide batzuk oso egoera kaxkarrean eta arriskutsuan daudelako".
- Edukiontzia egokiak jarri.
- Herri azoka antolatu, tokiko produktuei irteera ematen laguntzeko.

Eskaiera mekanikoa Etxealdian

Etxealdia kaxkotik gertu dagoen auzoa izanik, "gaur egun N-634 eta kale Nagusiaren arteko uharte bat da". Egoera iraultzeko, eskaiera mekaniko bat eraikitzea proposatu du.

Eserleku egokiak parkeetan

Azken boladan herriko parke eta pasealekuetan eserleku berriak jarri dira "egungo estetika modernoarekin. Eserleku hauetako batzuk ordea, ez diote adineko pertsonen edota mugikortasun arazoak dituzten beharrei erantzuten". Horregatik, "eserleku egokiak izatea lehenetsi behar dela uste dugu, bai esertzeko unean eta bai altxatzerakoan".

Lur azpiko aparkaleku bat Askatasuna plazan

EAJ-ren esanetan, aparkaleku falta oso nabarmena da kaxkoan. "Horrek izugarri zailtzen du saltokietara, jatetxeetara, elizara... joatea". Honen aurrean, lurpeko aparkaleku bat eraikitzea proposatu du EAJ-k. "Aparkaleku honek Askatasuna plaza eta Zubiurrenea kaleko bidearen zati bat hartuko litzuzke".

Padel pista bat

"Padela oso azalera txikia behar duen kirola da, gainera nahikoa sinpleak dira; beraz, kostu txikiko azpiegitura litzateke". Horrelako pista bat eraikitzea proposatu du EAJ-k. Udarregi eta Kiroldegiaren inguruan, edo anbulategiko aparkaleku ondoko zelaian.

GAR
GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK
943 53 72 38
628 45 78 39 628 91 72 15
reformasmonroy@hotmail.es
KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Josue Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

Alokairuan

San Esteban kalean (Etxealdia) 31m²ko lokal bat alokairuan. Masajeak emateko edo estetikaz zerbitzuak emateko prest-tuta dago. 655735715.

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Usurbilen pisu konpartitu batean logela bat alokatzen da mutil edo neska batentzat. Bila bazabiltza deitu 618032966

Neska kaudimenduna, maskotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

Usurbilgo gizonetako bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107.

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500.

MOTORRA**Salmenta, garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Olarrondo jatetxean zerbitzaria behar dute astebukaerarako. Eguerdian lan egiteko. 626 686 036.

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta barrarako. Euskalduna izatea

baloratuko da. 669 527 452.

Zerbitzari bila gabiltza Aginaga sagardotegian. Deitu telefono zenbakiotako batera: 943366710 edo 943370668.

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505.

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera.

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Adinekoak eta haurrak zain-

tzak edota etxeko garbiketarako egiteko eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak ditut 602568090.

Astelehen eta asteazken arratsaldeetan ingeleseko klaseak ematen ditut, norberaren etxean edo nirean. Klaseak ematen esperientzia zabala. 678106553.

Pertsona helduak, garbiketarako, peoi lanak edo pintore laguntzaile moduan aritzeko prest, gizonetako bat naiz. 622747833.

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest, neska bat naiz. 622747833.

Arratsetarako lan bila nabil. Euskalduna naiz, usurbildarra. Haurren zaintzan edo etxeko lanetan aritzeko prest. 616 27 37 85.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Titulu soziosanitariorekin. 612 433 485.

Adinekoak zaintzeko lan bila nabil. Geriatria ikastaroa egina dut. Orduka nahiz egun osoz lan egiteko prest. 604 349 970.

Nikaraguako neska arduratsua, garbiketarako eta adinekoen zaintza lanetan aritzeko erabateko prest. Esperientziaduna. 602 481 854 / anisieza@gmail.com

Pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume bat naiz. Ordutegi aldetik disponibilitate osoa. 608935674 (Anjela)

BESTELAKOAK

Ingeleseko, frantseseko eta latineko klaseak ematen ditut etxera joanda. 600766068.

Filologia ikasketak ditut, ingeleseko klaseak ematen ditut bakarka edo taldean. Maila guztiak. Harremanetan jartzeko deitu hona 660845780 edo idatzi email bat hona: bouchrahajar@outlook.com

Heriotzak**Irati Garayoa Furundarena**

Azaroaren 7an hil zen Usurbilen, 19 urterekin.

**Futbol partidak Haranen****Azaroak 13, larunbata**

■ 10:15 Infantil F-8 neskek:

Udarregi Usurbil FT B
Goierrri Gorri FK D

■ 11:30 Infantilen 1. Maila:

Udarregi Usurbil FT A
Ostadar SKT B

■ 15:30 Gizonetako

gorengoen maila:

Usurbil FT

Getariako Keta FT

■ 17:45 Erregionalen 1. Maila:

Usurbil FT-Atotxa River FC

Azaroak 14, igandea

■ 10:00 Kadeteen 1. Maila:

Usurbil FT B-Ostadar SKT B

■ 12:00 Emakumezkoen

gorengo maila:

Usurbil FT-Hernani CD

Pilota partidak**Usurbilen****Azaroak 12, ostirala, 18:40****Errendimentuko alebin****eta infantil pilota partidak**

■ Manterola-Izagirre (Abantzu)

■ Alejo-Aiestaran (Gure Txeru)

■ Blazquez-Arriaran (Ilunpe)

Eskubalo partidak**Oiardo kiroldegian****Euskal Liga Senior Mutilak****Azaroak 13, larunbata**

■ 17:30 Usurbil-Galdakao "A"

Azaroak 14, igandea, Bergaran

■ Gipuzkoako kadete nesken selekzioaren entrenamendurako deitu dute Anuk Harreguy Izagirre.

Goardiako farmaziak

Osteguna 11 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 12 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 13 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 14 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Astelehena 15 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteartea 16 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteazkena 17 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Osteguna 18 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 19 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 20 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 21 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER
Andre Kalea, 48 "Cuevas"
943 55 17 93

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda azaroa

12 ostirala

- "Noain 1521" erakusketa Sutegin.
- "Santuenea elkarlanean", galdetegia bertetzeko laguntza zerbitzua. 17:00-19:00. Santuenea 12ko lokalean.
- NOAUA! Kulturaldia: Zutani Teatroaren "Bete ingoiau". 22:00etan Sutegin.

13 larunbata

- Bertso-bazkaria Kafe Tertuliaren eskutik.
- Haur jolasak Santuenean 16:30etik aurrera.
- "Futbolistok II", Zuhaitz Gurrutxagaren bakarrizketa 20:00 Aginagako Eliza Zaharrea.
- NOAUA! Kulturaldia Eneritz Furyak eta Maite Larbururen kontzertua 22:00 Sutegin.

14 igandea

- NOAUA! Kulturaldia: "Luze edo Motz" binakako bakarrizketa 19:00etan Sutegin.

Bertso-bazkaria, Kafe Tertuliaren eskutik

U surbilgo neska* gazteak sare-tzeko taldeak bertso-bazkaria eta triki-poteoa antolatu ditu azaroaren 13rako:

Azaroak 13, larunbata

- 14:00 Usurbilgo nesken* saretzerako bertso-bazkaria.
- Bertsolariak: Uxue Alkorta, Libe Goenaga, Lierni Rekondo eta Maddi Aiestaran.
- Gai jartzailea: Olatz Zuazubiskar.
- Sarrera: 12 eurotan, Aitzagan eta Txirristran eskuragarri.

Bazkari-kontzertua Patri jatetxean

Larunbat honetarako kontzertu-bazkaria antolatu dute Patri jatetxean. Ainara Ortega kantariak eta Iñaki Salvador piano-joleak girotuko dute bazkari-kontzertua. 14:00etan hasiko da eta txartelak Patrín bertan eros daitezke, 40 euroren truke.



Ainara Ortega eta Iñaki Salvador arituko dira.



Sarrerak Aitzagan eta Txirristran daude salgai.

- 18:30 Triki-poteoa, Ostolaza ahizpekin.
- Antolatzaila: Kafe Tertulia, Usurbilgo neska* gazteen taldea.

Trebetasun jolasak Santuenean

Larunbat honetan, arratsalde partean, gatzetxoentzako jolasak Santuenean.

- 16:30/18:30, trebetasun jolasak.
- Ordua: 18:00/20:00 DJ Gorka Mendirekin disko festa txikientzat.
- Oharra: euria egingo balu, frontoian.



DJ Gorka Mendik girotuko du jolas-garaia.

Datozenak

"Noain 1521" hizpide izango duen zikloa Sutegin

Nafartarrak taldeak hainbat ekitaldi antolatu ditu egunotarako:

Azaroak 11, osteguna

- "Orreaga, Peñalén, Amaiur..." Patxi Zabaletaren hitzaldia Sutegiko erakustaretoan. 19:00etatik aurrera.

Azaroak 13, larunbata

- 10:00 Eneko Del Castillo: "Nafarroako atlas historikoa" liburuaren aurkezpena. 1.000 urtetan gure lurraldeak egin duen bilakaera.
- 11:00 Idoia Arrieta: "1200: konkista eta haustura".
- 12:00-14:00 Mahai-ingurua: Iñigo Larramendi (Nabarralde), Mikel Erauskin (Orreaga iritzi-taldea), Andoni Olariaga (Iratzar fundazioa) eta Ianko Ganboa (Eusko Alderdi Jeltzalearen Gipuzkoako Aldundiko juntakidea). Moderatzailea: Ainhoa Larrañaga (Mondragon Unibertsitateko irakaslea).

Erakusketa

- "Noain 1521: independentzia berreskuratzeko azken guda". Azaroak 13 bitarte, Sutegin ikusgai.
- Orduetgia: 19:00-21:00.

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak · beira bikoitza
- segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.eus



ETXEKOA, BERTAKOA

HERRIKOEN ZERBITZUA
BAINA HOBERIK BA AL DAGO?



Atetik sartzen
den bezero
bakoitzak
ematen die
bizia herriko
merkatariari.
Zuek ematen
diozue bizia!



hurbilag

USURBILGO MERKATARI ETA
OSTALARIEN ELKARTEA



gertuago.eus



Usurbil
Udala
gertu@go

Euskerako, nazionala, herri komitea

ELIADO JAUREKAITZA GOBIERNO VASCO

Ikus gertuago.eus-en dauken HURBILAGOKO
Gendak, berrik eta promisiak.



6€ ORDAINDU ETA 10€ GASTATU

Urbil BONOAK

BLACK FRIDAY



Guztira 2.500 bono daude. Ez zaitez gabe gelditu!

NOLA LORTU URBILBONOAK?

1. Urbileko Bezeroarentzako Arreta Gunean zure Urbil App-eko identifikazio kodea erakutsiz. Baita ere, urbil.es web orritik erosteko aukera izango duzu.
2. 10€-ko bonoak eros ditzakezu 6€-ren truke, Urbileko dendetan kontsumitzeko. Kontsumitzaile bakoitzak 3 Urbilbono erosi ahal izango ditu gehienez.
3. Erabili zure UrbilBONOAK azaroaren 22tik 30era.

BEZEROENTZAKO ARRETA GUNEAREN ORDUTEGIA

Asteleheneretik larunbatara,
11:00etatik 14:30era eta
16:30etik 20:30era.

Kontsultatu lokalak eta informazio gehiago www.urbil.es -en.

[BLOG](#) [f](#) [t](#) [@](#)



urbil.es